


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,1 gehitu ziren 2013ko abenduan aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean, 2012ko abenduaren aldean, eraikuntza kostuak %0,4 gehitu dira

2013ko abenduan, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,1 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,4, EUSTATen datuen arabera.



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,1 garestitu dira.

Abenduan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,1eko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,2koa.

Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,3 gehitu dira eta Obra Zibilekoenak %0,3 gutxitu.

Urteko prezioetan (2013ko abendua 2012koaren aldean), kontsumitu diren lehengaietan prezio-igoera handienak izandako sektoreak: Energia elektrikoa eta gasa (%6,0), Kautxu

eta plastikoa (%5,7), Ez-metalezko industria (%4,4). Eta prezio-jaitsierarik handienak: Metalurgia (%-4,3), Material elektrikoa (%-2,0), Material elektronikoa (%-1,3).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO ABENDUA (p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m-1	m / m-12	m / abendua
GUZTIRA	102,8	0,1	0,4	0,4
ERAIKINAK	102,6	0,1	0,5	0,5
OBRA ZIBILA	103,9	0,2	0,0	0,0
LEHENGAI A	102,6	0,1	0,2	0,2
ERAIKINAK	102,3	0,1	0,3	0,3
OBRA ZIBILA	104,0	0,2	-0,3	-0,3
LAN-ESKUA	103,6	0,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua